

DAZNen baldintza orokorrak Euskaltelen bezeroentzat . 22 DE OCTUBRE DE 2025

Euskaltelen bezero zarenez, DAZNen harpidetza-planetako bat gehitu ahal izango duzu osagarri gisa une bakoitzean finkatzen den/diren telekomunikazio-tarifa/tarifetan. Gaur egun, DAZN Fútbol, DAZN PRO edo DAZN Motor dituzu aukeran. Hori dela eta, DAZN plana erantsi diozun telekomunikazio-tarifa baja emanez gero, baja emango zaio automatikoki kontratatutako DAZN planari.

DAZNen ikus-entzunezko edukietara eskura dauden planen bidez sartzeko harpidetza pertsonalizatuaren zerbitzua DAZN Spain SL-k ematen du. Enpresa hori DAZN taldekoa da, eta Espainian erregistratua dago, helbide honetan: Avenida del General Perón, 40, Bloque D, 2.^a planta, 28020, Madrid, Espainia. DAZN harpidetza-zerbitzuaren funtzionalitateak DAZNek eskaintzen dituenetara eta haren ezaugarri teknikoetara mugatuta daude, eta hari dagokio zerbitzua emateko eginkizuna.

Euskaltelen eta DAZNen arteko merkataritza-hitzarmena amaitzen edo aldatzen bada eta, horren ondorioz, Euskaltelek ezin baditu hitzartutako baldintzetan eskaini DAZNen edukiak, bezeroei berariaz jakinaraziko zaie hori.

DAZN ikusteko eta haren edukiez gozatzeko, gailu bateragarri bat eta Interneteko konexioa behar dira.

Gainera, bezeroek beren tarifari gehitu nahi dioten DAZN plana aktibatu beharko dute, bezeroaren gunean zehaztutako prozesuari jarraituz.

Prozesu horretan, erabiltzaile-izen bat eta pasahitz bat sortuko dira; horien bidez, DAZN plataformara sartuko zara, eta, handik, zure harpidetzari lotutako izapideak egiteko aukera izango duzu, aurrez DAZNen Baldintza Orokorrak onartu ondoren.

-DAZN Fútbol planaren kasuan, bezeroek DAZN LALIGA1 eta DAZN LALIGA2 kanal linealak izango dituzte ikusgai. 2025/2026 denboraldian, LALIGA EA SPORTSen 5 partida emango ditu DAZNek jardunaldi bakoitzeko (35 jardunalditan). Horretarako, Euskaltelen sustapeneko TB-zerbitzu deskodetzaile duna izan behar da kontratatua.

-DAZN PRO eta DAZN Motor planen kasuan, behin plana aktibatu ondoren, edukiak DAZNen aplikazioaren bidez ikusi ahal izango dira.

Gainera, beste gailu batzuetan ere ikusi ahal izango dira edukiak, hala nola PCan, tabletan eta smartphoneetan (gailu askotariko aukera).

Bezero batek gehienez ere DAZN Fútbol, DAZN PRO edo DAZN Motor zerbitzu bakarra izan dezake aldi berean aktibo, eta, gainera, hilean behin bakarrik izango du plan horiek aktibatu edo desaktibatze aukera.

DAZN Fútbol, DAZN PRO edo DAZN Motor zerbitzuak Euskaltelek fakturatuko dizkio BEZEROAri, telekomunikazio-zerbitzuen fakturan. Zerbitzu horiek ordaindu ezean, bertan behera geratuko da plana.

Behin plana aktibatu ondoren, DAZN Fútbol, DAZN PRO edo DAZN Motor zerbitzua hainbanatuta kobratuko da, fakturazio-hilabete bezeroa zerbitzuaz baliatu den egun-kopuruaren arabera. Bezeroak bere DAZN plana aktibatzen ez badu, DAZN Fútbol, DAZN PRO edo DAZN Motor zerbitzuen lehen hileko kuota osoa bakarrik kobratuko da, eta 31 egunera bertan behera utziko da zerbitzuan egindako harpidetza, kargu gehigarriak saihesteko.

DAZNek zure datu pertsonalak nola tratatuko dituen ikus dezakezu hemen:

<https://www.dazn.com/es-ES/help/articles/privacy-es>